

Paulinoren sagardo tragoarekin hasi dute txotx denboraldia Hernanin



ETB1-eko 'Kontrako eztarria' saioko aurkezleek zabaldu dute txotx garai berria.

Paulino Ibargoiien usurbildarrak izan zuen igandean Hernaniko txotx denboraldia inauguratzeko ohorea, Euskal Telebistan lankide dituen Kontrako Eztarria saiokoekin batera. Asier Olaizolak ireki zuen txotxa, eta sagardoa zerbitzatu eta edalontziak gora jasota, "Hau da Hernani-

ko sagardo berriya!" esanez dastatu zuten 2014ko lehen sagardo tragoa Paulinok, Anjel Alkainek, Xabier Eguzkitzek, Iker Galartzak eta Jon Plazaolak. Urmoretsu joan zen igande eguerdiko ekitaldia, txistearik kontatzeko tarte hartu zuten eta, Paulinok eta Alkainek.